



Kulturaren Euskal Behatokiari 2021-2022an laguntza teknikoa emateko oinarri teknikoen orria.

1.- Kontratuaren xedea

Kulturaren Euskal Behatokiaren informazio kuantitatiboren kudeaketa-sisteman hobekuntzak eta interpretazioa lanak egitea eta zenbait txosten kualitatibo gauzatzea 2021 eta 2022 urteetan.

2.- Gauzatu beharreko prestazioak

Erakunde esleipendunak ondorengo ekimenetan txosten eta eginkizunak gauzatu eta aholkularitza eman behar izango ditu:

- 1.- Aholkularitza, laguntza teknikoa eta estatistikak hobetzeko proposamenak hurrengo operazioetan: Arte eta Kultur Industriak Estatistika (edizio bat), Sormenezko Industriak Estatistika (edizio bat), Finantzaketa eta Gastu Publikoa Kulturaren Estatistika (edizio bat) eta Panelak (dagokien edizioetan).
- 2.- Arte eta Kultur Industriak eta Sormenezko Industriak atalei dagozkien txosten sektorialak eta zeharkakoak proposatu eta egin (edizio bat).
- 3.- Analisiak egin eta proposatu eta gauzatu Finantzaketa eta Gastu Publikoa Kulturaren estatistikari dagozkion txostenak (edizio bat).
- 4.- EAEko kultura eremuko enpresa, enplegu eta lan merkatuaren txostena proposatu eta egin (edizio bat).
- 5.- Beste iturri batzuetatik egindako azterlana eta aldagaien proposamena.
- 6.- Operazio estatistiko bakoitzaren oinarrizko adierazleak proposatu eta gauzatu.
- 7.- Kultura adierazle hautatuak proposatu eta gauzatu (urtero).
- 8.- Kultura sektorearen egituraketari dagozkion txostenak proposatu eta gauzatu, bai zeharkako ildoetan nola sektorialetan, beti ere, nazioarteko joerak, sektorearen erronkak eta euskal errealitatearen beharrak oinarri hartuta (7 txosten urtero).
- 9.- Arte eta Kultura Industrien Panelari dagozkion buletin eta emaitzen analisi-txostenak egitea (urtean behin). Baita, Kultura Ohituren Panelarenak ere (sei hilabetero).



Txosten horiek egiteko, erakunde esleipendunak honako zeregin hauek egin behar izango ditu bederen:

- a) Prozesuei dagokien kalitate kontrola eta hobekuntza operatiboen diseinua egitea.
- b) Informazioa aztertzea eta interpretazioak egitea.
- c) Egindako azterketen emaitzen kontzeptualizazioa.
- d) Hurbilketa metodologiakoa eta ikerketa-lerroak zehaztea.
- e) Egindako azterketen emaitzak kontzeptualizatzea.
- f) Proposamenak egitea eta ondorioak ateratzea.

Txostenak paperean eta euskarri informatikoan aurkeztu behar dira.

3.- Lantaldea

Prestazioa gauzatuko duen lantaldeak honako kide hauek izan behar ditu gutxienez:

- Koordinatzailea, kulturari buruzko informazio kuantitatiboaren eta kualitatiboaren azterketan eta interpretazioan aditua.
- Teknikari bat, kultura-sektoreetako ikerketan aditua.
- Analista bat, kultura-sektoreetako informazioaren azterketan aditua.

Lanean hasten den taldeak amaitu behar du lana, kide beraiekin, ezinbestek eragindako kasuak izan ezik, eta betiere Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren onespenezekin. Kasu horretan, kontratistak proposatu beharko ditu beste pertsona batzuk, hasieran proposatutakoen kategoria eta egoera profesionala dutenak, gutxienez.

Halaber, lan-arriskuen prebentzioaren alorrean indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu enpresa esleipendunak.

Gainera, enpresa esleipendunak baldintza hauek bete beharko ditu:

Produkzio-antolaketa propioa izatea, beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak izatea, eta baliabide horiek erabiltzea kontratatutako jarduera garatzeko.



Enpresa-jardueraren garapenak dakartzan arriskuak, betebeharrak eta erantzukizunak bere gain hartzea.

4.- Lantokia

1.- Kontratututako xederako egin beharreko zeregin guztiak enpresa esleipendunak horretarako aurreikusitako lokaletan gauzatuko dira, eta ez dira inolaz ere erabiliko Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren lokalak.

2.- Aurreko puntuan adierazitakoa gorabehera, berariazko kanpo-lana (elkarrizketa sakonak eta abar) ere egin ahal izango da kultura-eragileen eta adituen lan lekuetan.

5.- Mendekotasun funtzionala eta organikoa

Ez Kulturaren Euskal Behatokiak, ez Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, ez dute inolako loturarik langile horiekin (ez lan-harremanik, ez kontraturik, ez harreman funtzionalik, ez bestelako loturarik), ez kontratua indarrean dagoen bitartean, ez amaitu ondoren.

Horrenbestez, ez Kulturaren Euskal Behatokiak, ez Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, ez dute inolako erantzukizunik izango hirugarrenei eragindako kalteengatik, enpresa esleipendunaren legezko ordezkarien, enpresako kolaboratzaileen edo zerbitzu ematen diotenen ekintzen edo omisioen ondorioz.

6.- Lanen jarraipena

Kulturaren Euskal Behatokiari eta enpresa esleipendunari dagokie pertsonala izendatzea, lanen jarraipen egokia bideratzeko. Izendapen horiek egiteko prozedura eta egutegia zehaztu behar dira, Kulturaren Euskal Behatokiaren eskakizunen arabera.

Lanerako kronograman zehaztutako zeregin bakoitzaren eraginkortasunaren, efizientziaren eta kalitate-mailaren jarraipena egiteko prozesuaz arduratuko da Kulturaren Euskal Behatokia. Horrenbestez bermatuko da helburuak eta kalitate-irizpideak betetzen direla azterketen fase bakoitzean.



7.- Esleipendunaren betebeharrak

Kontratatutako enpresak ezingo ditu beretzat erabili, ezta besteei eman ere, kontratatutako lanari dagozkion datuak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren berariazko baimenik izan ezean. Horren haritik, esleipendunak aurkezpenaren xede diren elementuak entregatzen dituenetik, aitortu eta ziurtatu behar du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eskatuz gero, titulartasuna Administrazioari dagokiola, aipatutako eremuan.

Kontratazioarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eskuratzen ditu, halaber, eratzen diren datu-baseen ustiapen ekonomikoak eragin ditzakeen jabetza intelektualaren eskubideak, baita prestazioan sortutako dokumentuek eta elementuek eragin ditzaketenak ere (elementu bereizgarriak barne hartuta). Eskubide horiek dira erreprodukzioari, banaketari, komunikazio publikoari, eraldaketari eta abarri dagozkienak eta ustiapen ekonomikoa ekar lezaketenak, mundu guztian, hizkuntza guztietan eta prozedura guztietan, legediak ezarritako data eta epeetan, jabari publikokoak izan arte, jabetza intelektualari buruzko araudiak xedatutako baldintzak eta mugak aintzat hartuta.

Dokumentu guztiak eta gainerako elementuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eskuetan jarriko dira, helbide honetan: Kultura Sailburuordetza. Lakua I eraikina, 2. solairua. Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

Kontratua gauzatzeko aldiari, prestazioa zuzena dela egiaztatze eskubidea du Administrazioak; halaber, prestazio hori baldintza administratiboan orrian, oinarri teknikoan orri honetan eta esleipendunaren eskaintzan xedatutakoarekin bat datorrela egiaztatze eskubidea du. Ildo horretan, esleipendunak zuzendu edo egokitu beharko ditu adierazitako alderdiak, horretarako jarritako epean.

8.- Segurtasuna eta konfidentzialtasuna

Lanak bideratzeko enpresak eskuratzen edo biltzen dituen datuak babestuta daude, aplikatu beharreko xedapenen bidez, hau da, indarrean dagoen Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2016/679 Araudia (UE), 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreaki lotuta pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Bai enpresa esleipendunak, bai kontratua gauzatzeko zuzenean edo zeharka esku hartzen duten pertsonak, arlo horretako araudia bete beharko dute.



Enpresa esleipendunak beharrezko neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak hartu beharko ditu, datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta datu horiek aldatzea, galtzea edota baimendu gabeko tratamendua edo sarbidea ematea saihesteko.

Enpresa esleipendunak edo enpresa horren kide batek datuak beste helburu batzuetarako erabiltzen baditu, jakitera ematen baditu, edota kontratu honetan zein segurtasun-dokumentuan xedatutakoa urratuz erabiltzen baditu, ulertuko da kontratua ez duela bete. Horrenbestez, kontratua baliogabetuko da eta kalte-galerak ordaindu beharko ditu, dagokion erantzukizun zibilaren, penalaren edo administratiboaren kalterik gabe.

Txostenak guztiz konfidentzialak izango dira, ezingo dira argitaratu (ez osorik, ez zati bat) eta ezingo dira beste edonola erabili, Eusko Jaurlaritzaren berariazko eta aurretiazko baimen idatzia izan ezean.

Esleipendunak ezingo du inoiz egin kontsultatutako datuei buruzko edo prestatutako txostenaren edukiei buruzko adierazpen publikorik, Eusko Jaurlaritzaren berariazko eta aurretiazko baimena izan ezean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 9a.



Mikel Etxebarria Agirresarobe
Kultura Plangintzarako arduraduna